Zergadunaren gakoa: «A» jarriko da, etekina lortu duena aitorlea bera denean, «E» ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea denean, eta «S1», «S2»… honelako etekinak dituen seme-alaba bakoitzeko.

Jarduera mota: dagokion mota adieraziko da: ENP. = enpresakoa, PRO = profesionala, ART = artistikoa, NEK = nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza, BAS = basogintza.

EJZko epigrafea eta testua: Jarduerari dagokion Ekonomia Jardueraren gaineko Zergaren epigrafea eta testua adieraziko dira.

Jardueraren helbidea eta udalerria: Jardueraren helbidea eta udalerria adieraziko dira.

Lan egiten duten familia unitateko kideen kopurua eta beste langileak: Hala badagokio, jardueran lan egiten duten langileak adieraziko dira.

Alokatzailea: Jarduera egiten den lokala alokatu duenaren IFZ, izena eta bi abizen idatziko dira pertsona fisikoa bada, eta sozietate helbidea pertsona juridikoa bada, bai eta alokairuaren zenbatekoa eta egoera ere.

KONTURAKO ORDAINKETAK

Zatikako ordainketak: PFEZaren kontura zatikako ordainketak egin badira, ordainketa horiek idatziko dira.

1475 laukiko emaitza likidazioaren 5. orriko 514 laukian jarri beharko duzu.

Atxikipenak: PFEZaren kontura atxikipenak egin badira, ordainketa horiek idatziko dira.

1476 laukiko emaitza likidazioaren 5. orriko 510, 512 edo 513 laukian jarri beharko duzu.

ETEKIN GARBIAREN KALKULUA

Jardueraren sarrerak eta gastuak, modalitate normalari, erraztuari edo basogintza jardueratako erraztuari dagokion zutabean adieraziko dira.

I.- MODALITATE NORMALA:

Honakoak aplikatuko dira: Sozietateen gaineko Zergako arauak, eta urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren 26. artikuluko arau orokorrak, eta 28. artikuluko zuzeneko zenbatespenaren modalitate normalean adierazten diren etekin garbia zehazteko arauak.

Modalitate normaleko etekin garbia zehazteko, gehitu edo kendu egingo zaizkio jarduerari atxikitako ondare elementuetatik sortutako irabaziak eta galerak. Horiek Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoari jarraituz zenbatuko dira. Halaber, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoa aplikatuko da aparteko irabazien berrinbertsioari dagokionean.

II.- MODALITATE ERRAZTUA:

a) Arau orokorra: Sarrerak eta gastuak kalifikatu eta zenbatuko dira, hornidurak, amortizazioak eta jarduerari atxikitako ondare elementuetatik sortutako irabaziak eta galerak izan ezik. Hori egiteko, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua eta modalitate normalerako aurreikusitako arauak hartuko dira kontuan.

Ondoren, aipatutako sarrera eta gastuen arteko aldea kalkulatuko da. Hortik ateratzen den kopuruari, %10 kendu behar zaio, amortizazio, hornidura eta justifikatzen zailak diren gastuak direla eta.

Hori guztia egin ondoren lortutako kopuruari gehitu edo kendu egingo zaizkio jarduerari atxikitako ondare elementuetatik sortutako irabaziak eta galerak. Horiek Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoari jarraituz zenbatuko dira.

b) Ardogileen jarduerari eta nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza jarduerei aplika dakiekeen **erregela berezia**.

Aurreko ehunekoa %35 izango da.

c) Baso jarduerari aplikatu beharreko prozedura

Sarrerak eta gastuak kalifikatu eta zenbatuko dira, jarduerari atxikitako ondare elementuetatik sortutako irabaziak eta galerak izan ezik. Hori egiteko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 28. artikuluko arauetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Gastu kengarriak, justifikatzen eta balioesten zailak direnez, aurreko idatz zatian aipatutako sarrerei %58,50eko ehunekoa aplikatuz konputatuko dira.

Zergadunak lur ustiatuak oihaneztatzen baditu, aurreko paragrafoan aurreikusi den gastu kengarrien ehunekoa aurreko idatz zatian aipatutako sarreren %70 izango da.

Oihaneztatzea abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuan ezarritako baldintzei eta epeei loturik egin behar da.

Aurreko sarrera eta gastuen arteko aldea kalkulatuko da.

Aurreko aldeari, bidezkoa denean, Zergaren Foru Arauan bi edo bost urte baino aldi luzeagoan sortu eta ez aldian-aldian ez lantzean behin lortzen ez diren jarduera ekonomikoen etekin garbietarako ezarritako tratamendua emango zaio.

Aurreko arabera kalkulatzen den zenbatekoari jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak edo galerak gehitu edo kendu behar zaizkio, kasuan kasukoa, Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluko 5 idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

Halaber, aurreko bi prozeduretan, Sozietateen gaineko Foru Arauan xedatutakoa aplikatuko da aparteko irabazien berrinbertsioari eta berrinbertsioagatiko salbuespenari dagokienean.

ERRENTA EGOZKETA

Jarduera aurrera ateratzen sozietate zibilak, ondasun komunitateak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35.3. artikuluan aipatzen diren gainerako entitateak diharduten, etekin garbia bazkideei, komuneroei eta abar esleituko zaie, bakoitzari dagozkion arauen arabera.

B-1 eranskinean partaidetzaren ehunekoa adierazteaz gain, B-4 eranskina bete beharko da.

Egotzitako etekinaren laukia, 50 laukia, dagokion egozketaren ehunekoa jardueraren etekinaz biderkatuz lortuko dugu (45 x 46).

BAZKIDE KAPITALISTAREN ETEKIN EGOTZIGABEAGATIKO DOIKUNTZA

Jarduera egiten duena errentak esleitzeko erregimeneko entitatea izanez gero, eta bazkide kapitalista bat edo gehiago egonez gero, bazkide horiei dagokien etekinak ezingo du izan bakoitzak jarritako kapitala baino % 15 gehiago (aurkakoa egiaztatzen ez denean behintzat). Partaidetzaren ehunekoaren arabera egotzitako etekinak muga hori gainditzen badu, normalean jardueran diharduten bazkideek honako hauek doitu beharko dituzte:

$$\frac{b_1}{b_1 + b_2 + ... + b_n} \times (c - c_1)$$ izanik:

b_1: zergadunaren partaidetzaren ehunekoa (jardueran egiten du lan).

$b_1 + b_2 + ... + b_n$: lan egiten duten bazkide guztien $\%\Sigma$(zergaduna barne).

c: % bazkide kapitalistaren partaidetzaren ehunekoa x jarueraren etekina.

c_1: bazkide kapitalist(ar)en kapital ekarpenaren %15

Doikuntzaren kalkulua 51 laukian idatziko da.

ZERGADUNAREN ETEKIN GARBIA

55 laukiko etekin garbiak aitorpenaren 2. orriko 62, 64, 66 eta 68 laukietan jarriko dira. 61, 63, 65 eta 67 laukietan etekinak zein zergaduni («A», «E», «S1», «S2»…) dagozkion adieraziko da.

BAZKIDE KAPITALISTARI EGOTZITAKO ETEKINA (kapital higikorra)

«Egotzitako errentek dagokien jardueraren edo iturriaren araberako izaera izango dute bazkide, oinordeko, erkide edo partaide bakoitzaren kasuan.

Errenta egozketako erregimeneko entitate batek ekonomia jardueraren bat duenean, ekitaldi horri dagozkion etekinek izaera hori bera izango dute jarduerari atxikitako produkzio bitarteko eta giza baliabideen norberaren konturako antolamenduan modu ohizko, pertsonal eta zuzenean esku hartzen duten entitateko kideentzat.

Dena dela, egotzitako etekinak kapitaletik etorritako gisa kalifikatuko dira aipatutako esku hartze hori egiten ez duten eta entitatean duten parte hartzea kapital ekarpen soila egitera bideratzen duten bazkide, oinordeko, erkide edo partaideentzat. Kasu horretan, aurkakoa egiaztatzen ez denean behintzat, egotz dakiekeen etekina gehienez ere kapital ekarpenaren % 15ekoa izango da.» (3/2007 Foru Arauaren 56. artikulua).

Zergaduna bazkide kapitalista bada, honakoa hartuko da kontuan:

– 55 laukiko zenbatekoa jarritako kapitalaren % 15 edo gutxiago bada, zenbateko hori bigarren orriko 144 laukian jarriko da.

– 55 laukiko zenbatekoa jarritako kapitalaren %15 baino gehiago bada, zenbateko hori ekarritako kapitalaren %15era mugatuko da, eta 144 ra lekualdatuko.

ERREGISTRO LIBURUAK

Kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera egiten bada, erregistro liburuak eramateko beharrik ez dago.

Bestela, atal hau beteko da eta liburu mota bakoitzeko honakoa zehaztuko da: zenbat liburuki dituen, zergaldian erabilitako orri kopurua, zergaldi horretan hartutako ohar kopurua eta azkeneko oharraren data.

2 EDO 5 URTE BAINO GEHIAGOAN LORTUTAKO ETEKIN GARBIAK, EDO IRREGULARRAK DIREN ETEKIN GARBIAK (3/2007 Foru Arauaren 26.7 artikulua eta 76/2007 Foru Dekretuaren 23. artikulua)

1493 edo 1495 laukietan agertzen den kopurua biderkatu egingo da %60rekin edo %50rekin, hurrenez hurren. Entitatea izanez gero, kopuru hori partaidetzaren ehunekoarekin ere biderkatuko da. Ondoren, konputatzeko etekin garbiaren laukira eraman behar da emaitza, hau da, hurrenez hurren 1494 edo 1496 laukietara. Etekin garbi hori aitorpenaren 2. orriko 62, 64, 66 eta 68 laukietara eraman behar da. 61, 63, 65 eta 67 laukietan etekinak zein zergaduni («A», «E», «S1», «S2»…) dagozkion adieraziko da.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	PFEZ 2011 B-3 ERANSKINA

MODULU BIDEZKO ZENBATESPEN OBJEKTIBOA

JARDUERAREN DATUAK

3999: 1 2 3 4 5 6

Zergadunaren gakoa	3961		Jarduera mota	3962	1 ENP.		
EJZko epigrafea	3963		EJZko testua	3964			
Jarduera egoitza	3965						
PK 3966	Udalerria 3967		Herria	3968			
Familia unitateko kide kopurua (lanean)	3969		Beste langileen kp.	3970			

ZATIKAKO ORDAINKETAK 3975

ATXIKIPENAK 3976

Alokatzailea: IFZ	3971	
Alokatzailea: Izena eta deiturak	3972	
Alokairuaren zenbatekoa	3973	
Higiezinaren identifikazioa	3974	

ZERGADUNAREN ALEA

ETEKIN GARBIAREN KALKULUA
modulu bidezko zenbatespen objektiboaren barruan dauden jarduerak, "Errepideko salgai garraioa" jarduera izan ezik, EJZko 722 taldea

MODULUEN ETEKINAK	MODULUA		Unitate kp.		Moduluaren etekina	
Oharra: abenduaren 14ko 791/2010 Foru Arauan zehaztutako hurrenkera berean jarri behar dira moduluak.	1	3701		3711		
	2	3702		3712		
	3	3703		3713		
	4	3704		3714		
	5	3705		3715		
	6	3706		3716		
	7	3707		3717		
	8	3708		3718		
Moduluen etekinen BATURA (11 + 12 +...+ 18)				3720		

INDIZE ZUZENTZAILEAK	Indizea		Etekin zuzendua	
1. Bereziak	3721		3731	
2. Orokorra	3722		3732	
3. Denboraldikoa	3723		3733	
4. Soberakinekoa	3724		3734	
MODULU BIDEZKO ETEKIN GARBIA			3735	
Ohiz kanpoko egoerengatik izandako aparteko gastuen murrizketa			3736	
DIFERENTZIA (35 - 36)			3740	
Lotutako ondare elementuetako irabaziak/galerak (B-4 eranskina)			3741	
Aldi baterako ezintasuneko prestazioa (ABE)			3742	
JARDUERAREN ETEKINA (40±41+42)			3745	
Partaidetza ehunekoa (%100 ez bada, bete B-4 eranskina)			3746	
EGOTZITAKO ETEKINA (45 x 46)			3750	
Bazkide kapitalistaren etekin egotzigabeagatiko doiketa			3751	
ZERGADUNAREN ETEKIN GARBIA (50+51)			3755	

ETEKIN GARBIAREN KALKULUA
(bakar-bakarrik "Errepideko salgai garraioa" EJZko 722 taldea)

MODULUEN ETEKINAK	MODULUA		Unitate kp.		Moduluaren etekina	
Oharra: abenduaren 14ko 791/2010 Foru Arauan ezarritakoaren arabera jarri behar dira moduluak (otsailaren 4ko 73/2011 Foru Aginduak aldatuak)	1	3801		3811		
	2	3802		3812		
	3	3803		3813		
Aurreko etekin garbia (11 + 12 + 13)				3815		
Inbertsiorako pizgarriengatiko gutxiketa (amortizazioak)				3816		
Gutxitutako etekin garbia (15 - 16)				3820		

INDIZE ZUZENTZAILEAK	Indizea		Etekin zuzendua	
1. Berezia	3821		3831	
2. Denboraldikoa	3822		3832	
3. Soberakinekoa	3823		3833	
4. Jarduera berrien hasieragatik	3824		3834	
MODULU BIDEZKO ETEKIN GARBIA			3835	
Ohiz kanpoko egoerengatik izandako aparteko gastuen murrizketa			3836	
DIFERENTZIA (35 - 36)			3840	
Lotutako ondare elementuetako irabaziak/galerak (B-4 eranskina)			3841	
Aldi baterako ezintasuneko prestazioa (ABE)			3842	
JARDUERAREN ETEKINA (40±41+42)			3845	
Partaidetza ehunekoa (%100 ez bada, bete B-4 eranskina)			3846	
EGOTZITAKO ETEKINA (45 x 46)			3850	
Bazkide kapitalistaren etekin egotzigabeagatiko doiketa			3851	
ZERGADUNAREN ETEKIN GARBIA (50+51)			3855	

B3 ERANSKINA - PFEZ 2011

ARGIBIDEAK

Eranskin hau honako zergadunek bete beharko dute: ekonomia jardueran izandako etekin garbiak aitortzeko zeinu, indize edo modulu bidezko zenbatespen objektiboa erabiltzen dutenek. Eranskina jarduera bateko etekinak jasotzeko prestatuta dago. Zergadunak jarduera bat baino gehiago badu, behar adina eranskin gehigarri aurkeztu beharko ditu. Zerga oinarria zehazteko erregimen honi dagokion jarduera bakoitzeko, ondoren azaltzen diren datuak bete beharko dira.

Markatu X batekin zergadunak berak egindako jarduera bakoitza. Hainbat jarduera izateagatik, hainbat eranskin betez gero, eranskin bakoitzean lauki diferentea markatu.

1	2	3	4	5	6

JARDUERAREN DATUAK

3961 **Zergadunaren gakoa:** «A» jarriko da, etekina lortu duena aitorlea bera denean, «E» ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea denean eta «S1», «S2»… honelako etekinak dituzten seme-alaba bakoitzeko.

3962 **Jarduera mota:** Ekonomia jarduera adieraziko da: ENP = enpresakoa.

3963 **eta** 3964 **EJZko epigrafea eta testua:** Jardueran dagokion Ekonomia Jardueraren gaineko Zergaren epigrafea eta testua adieraziko dira.

3965 **eta** 3967 **Jardueraren helbidea eta udalerria:** Jardueraren helbidea eta udalerria adieraziko dira.

3969 **eta** 3970 **Lan egiten duten familia unitateko kideen kopurua eta beste langileak:** Hala badagokio, jardueran lan egiten duten langileak adieraziko dira.

3971 3972 3973 3974 **Alokatzailea:** Jarduera egiten den lokala alokatu duenaren IFZ, izena eta bi abizen idatziko dira pertsona fisikoa bada, eta sozietate helbidea pertsona juridikoa bada, bai eta alokairuaren zenbatekoa eta egoera ere.

3975 **Zatikako ordainketak:** PFEZaren kontura zatikako ordainketak egin badira, ordainketa horiek idatziko dira, eta zenbateko hori likidazioaren 5. orriko 514 laukira eramango da.

3976 **Atxikipenak:** PFEZaren kontura atxikipenak egin badira, idatziko dira atxikipen horiek. Jarritako zenbatekoa likidazioaren 5. orrialdeko 510 laukira eraman behar da.

ETEKIN GARBIAREN KALKULUA

Moduluen laukiak betetzerakoan abenduaren 14ko 791/2010 Foru Aginduan xedatutako hurrenkera bera errespetatuko da, «salgaien errepide bidezko garraioa» jarduerari (EJZren 722 taldea) dagozkion datuak bereiziz –otsailaren 4ko 73/2011 Foru Aginduak aldatuak–.

«Unitate kopurua» zutabean modulu bakoitzeko batez besteko unitateak idatziko dira, jarduera egin den urteko denboraldiko batez besteko unitateak, alegia.

A.- Oro har. «Unitate bakoitzaren etekina» unitate bakoitzari dagokion modulu unitateekin biderkatuz gero, «modulu bakoitzeko urteko etekinak» lortuko dira, eta modulu bakoitzeko urteko etekin guztien batura 3720 laukian idatziko da.

Dagozkion jardueretako "apustu makina lagungarrien moduluari %75eko hobaria ezarriko zaio.

B.- Salgaien errepide bidezko garraioari dagokionez, aldez aurretiko 3815 etekin garbia 3811, 3812 eta 3813 laukien batura izango da. Batura hori 3816 laukiko (inbertsioetarako, amortizazioetarako pizgarriak) zenbatekoan murriztuko da, 3820 etekin garbi murriztua lortzeko.

Ondoren, 3720 edo 3820 laukietako zenbatekoa zuzenduko da abenduaren 14ko 791/2010 Foru Aginduan xedatutakoari jarraituz aplikatu beharreko indize zuzentzaileekin. Foru dekretu hori PFEZn zeinuak, indizeak edo moduluak ezartzeko argibideen arau orokorrei buruzkoa da.

A. Modulu bidezko Zenbatespen Objektiboko Jardueretako indize zuzentzaileak, 722 taldeko salgaien errepide bidezko garraiokoak izan ezik:
   1. Bereziak: 3721 laukia: Honako hauek idatziko dira: a) 0,85, 0,90 edo 1; b) 0,80 edo c) 0,8, dagokionaren arabera.
      3731 laukia: Indize zuzentzailea 3720 laukiko etekinaz biderkatzean lortutako emaitza idatziko da.
   2. Orokorra: 3722 laukia: 0,70, 0,75 edo 0,80 idatziko da, betiere bakoitzari dagokiona kontuan hartuta.
      3732 laukia: Indize zuzentzailea 3720 laukiko etekinaz biderkatzean lortutako emaitza idatziko da.
   3. Denboraldikoa: 3723 laukia: 1,50, 1,35 edo 1,25 idatziko da, betiere dagokiona kontuan hartuta.
      3733 laukia: indize zuzentzailea 3720 laukiko edo 3731 laukiko edo 3732 laukiko etekinaz biderkatzean lortutako emaitza idatziko da.
   4. Soberakinekoa: 3724 laukia: 1,30 idatziko da, 2. indize zuzentzailea dagokien jardueretan izan ezik. 3734 laukia: etekin zuzendua idatziko da, behin indize horretarako abenduaren 14ko 791/2010 Foru Aginduan adierazitako zenbatekoen gaineko soberakinari 1,30 ezarri eta gero.

B. Indize zuzentzaileak 722 taldeko salgaien errepide bidezko garraioan: abenduaren 14ko 791/2010 Foru Agindua.
   3820 emaitzari honako indize zuzentzaileak ezarriko zaizkio: berezia, denboraldikoa eta soberakinekoa.
   Era berean, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako jardueretan, baldin eta abenduaren 14ko 791/2010 Foru Aginduak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira, badago 0,8ko indize zuzentzailea lehenengo ekitaldian, eta 0,9koa bigarrenean.

3735 3835 **Modulu bidezko etekin garbia:**
31 32 33 34 laukiei dagokien lekualdaketatik sortzen da. Lauki horietan ezin bada indize zuzentzailerik aplikatu, 3720 3820 laukietako zenbatekoa idatziko da.

3736 3836 **Ohiz kanpoko egoerengatik izandako aparteko gastuen murrizketa:**
Suteak, uholdeak, hondoratzeak, eta abar dira. Gertakizun hori Zerga Administrazioari jakinarazi bazaio eta hark egiaztatu eta zenbatekoa ezarri badu, idatzi 36 laukian.

3740 3840 **Diferentzia:**
Diferentzia hori honetan datza: 35 laukia 36 laukiarekin murriztean.

3741 3841 **Lotutako ondare elementuetako irabaziak/galerak:**
Ekonomia jarduerari lotutako elementuak besterentzea dela eta sortutako irabaziak edo galerak diferentziari gehitu edo kenduko zaizkio. Horiek Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan xedatutakoari jarraituz zenbatuko dira. Era berean, arau horretan xedatutakoa ezarriko da onura bereziak berrinbertitzean.

3742 3842 **Aldi baterako ezintasuneko prestazioa:**
Idatzi aldi baterako ezintasunagatik jasotako prestazioak.

3745 3845 **Jardueraren etekina:**
Lehenik, jarduerari lotutako elementuak besterentzeagatik sortutako irabaziak diferentziari (40 laukia) gehituko zaizkio, jarduerari lotutako elementuak besterentzeagatik sortutako galerak (41 laukia) kendu eta gero, eta bigarrenik, aldi baterako ezintasunagatik jasotako prestazioak (42 laukia) gehituko zaizkio.

3746 3846 **Partaidetza ehunekoa:**
Jarduera sozietate zibilek, ondasun komunitateak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35.3. artikuluan aipatzen diren gainerako entitateek egiten dutenean, etekin garbia bazkideei, komuneroei eta abar egotziko zaie, bakoitzari dagozkion arauen arabera. Jarri egozketa ehunekoa. Eta gainera, B-4 eranskina bete beharko da.

3750 3850 **Egotzitako etekina:**
Egozketa ehunekoa (46 laukia) jardueraren etekinarekin (45 laukia) biderkatzean lortzen da.

3751 3851 **Bazkide kapitalistaren etekin egotzigabeagatiko doikuntza:**
Jarduera errenta egozketako erregimenean dagoen entitateren batek egiten badu eta kapitalista bat edo gehiago baldin badago, bazkide horiei egotzitako etekina ezin izango da bakoitzak ekarritako kapitalaren %15 baino handiagoa izan (kontrako frogarik izan ezean). Partaidetza ehunekoaren arabera egotzitako etekinak muga hori gainditzen badu, jardueran ohizko moduan aritzen diren bazkideek doikuntza egokia egin eta 51 laukian jaso beharko dute.

3755 3855 **Zergadunaren etekin garbia:**
Idatzi 50 + 51 laukietako batura. Etekin hori likidazioaren 2. orriko 62, 64, 66 eta 68 laukietara eraman behar duzu, bakoitzari dagokion eran. 61, 63, 65 eta 67 laukietan etekinak zein zergaduni («A», «E», «S1», «S2»…) dagozkion adieraziko da.

Bazkide kapitalistari egotzitako etekina (kapital higikorra)
55 laukiko zenbatekoa ekarritako kapitalaren %15 edo gutxiago bada, zenbateko hori bigarren orriko 144 laukira eramango da.
55 laukiko zenbatekoa ekarritako kapitalaren %15 baino gehiago bada, zenbateko hori ekarritako kapitalaren %15era mugatuko da eta bigarren orriko 144 laukira eramango da.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	PFEZ 2011 B-4 ERANSKINA

ENTITATEA: SOZIETATE ZIBILA / ONDASUN ERKIDEGOA

4199 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6

Zergadunaren gakoa 4101 | EJZko epigrafea 4102 | EJZko testua 4103

Metodoa, modalitatea 4104

Entitatearen IFZ 4105

Entitateko partaidetza ehunekoa 4106 %

Entitatearen atxikipenak guztira 4107

EKONOMIA JARDUERAN LAN EGITEN DUTEN BESTE BAZKIDEAK

IFZ		Izena eta deiturak		Partaidetza ehunekoa	
4111		4112		4113	
4114		4115		4116	
4117		4118		4119	
4120		4121		4122	
4123		4124		4125	

BESTE BAZKIDE KAPITALISTAK (ez dute lanik egiten ekonomia jardueran)

IFZ		Izena eta deiturak		Partaidetza ehunekoa		Ekarritako kapitala	
4126		4127		4128		4129	
4130		4131		4132		4133	
4134		4135		4136		4137	
4138		4139		4140		4141	
4142		4143		4144		4145	

ZERGADUNARENTZAKO ALEA

LOTUTAKO ONDARE ELEMENTUAK ESKUALDATZEAREN ONDORIOZKO IRABAZIAK / GALERAK

JARDUERAREN DATUAK

4299 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6

Metodoa eta modalitatea 4146 | JZko epigrafea 4147 | EJZko testua 4148

Zergadunaren gakoa 4149

Jarduera mota 1462 1 ENP 2 PRO 3 ART 4 NEK 4 BAS

Elementuaren identifikazioa	4151
Eskuratze data	4152
Eskualdaketa data	4153
Erosketa prezioa, ekoizpen kostua (A)	4154
Amortizazio metatuak (B)	4155
Kontabilitate balio garbia (A) - (B) 54 - 55	4156
Eskualdaketa balioa	4157
ONDARE GALERA (57 - 56) < 0	4158
ONDARE IRABAZIA (57 - 56) > 0	4159
Monetaren baliogaleraren zenbatekoa	4160
Irabazi zuzendua 59 - 60	4161
Berrinbertsioagatik salbuetsitako irabazia	4162
IRABAZI KARGAGARRIA 61 - 62	4164

B4 ERANSKINA - PFEZ 2011

ARGIBIDEAK

Eranskin honetako idatz zatiak ondorengo zergadunek bete beharko dituzte: ekonomia jarduera sozietate zibilean, ondasun erkidegoan eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35.3. artikuluan aipatzen diren gainerako entitateetan egiten duten zergadunek.
Ekonomia jarduerari lotutako ondare elementuak eskualdatzean irabaziak edo galerak izan dituzten zergadunek edo entitateek ere dagokien idatz zatia bete beharko dute. Zergadunak jarduerari lotutako elementu bat baino gehiago eskualdatu badu, behar adina eranskin gehigarri aurkeztu beharko ditu.

ENTITATEA: SOZIETATE ZIBILA / ONDASUN ERKIDEGOA

4101 Zergadunaren gakoa:
Datuak aitorlearenak direnean «A» idatziko da, ezkontidearenak edo izatezko bikoteko kidearenak direnean «E» eta seme-alaba bakoitzarenak direnean «S1», «S2»…

4102 4103 EJZko epigrafea eta testua:
Jarduerari dagokion Ekonomia Jardueraren gaineko Zergaren epigrafea eta testua idatziko dira.

4104 Metodoa eta modalitatea:
ZZ: zuzeneko zenbatespenaren metodoa, ZO: zenbatespen objektiboaren metodoa, MN: modalitate normala, ME: modalitate erraztua, MM: zeinu, indize eta moduluen modalitatea.

4105 4106 Entitatearen IFZ eta partaidetza ehunekoa:
Zergadunari dagokion IFZ eta esleipen ehunekoa idatziko dira.

4107 Entitatearen atxikipenak, guztira:
Entitatearen atxikipen guztiak idatziko dira.

4111 tik 4125 ra Ekonomia jardueran lan egiten duten beste bazkideak:
Dagokion laukietan IFZa, izen-abizenak eta partaidetza ehunekoa idatziko dira.

4126 tik 4145 ra Beste bazkide kapitalistak:
Dagokion laukietan IFZa, izen-abizenak, partaidetza ehunekoa eta ekarritako kapitala idatziko dira, beste bazkide kapitalistarik bada.

EKONOMIA JARDUERARI LOTUTAKO ONDARE ELEMENTUAK ESKUALDATZEAREN ONDORIOZKO IRABAZIAK / GALERAK

Zergadunaren irabazi edo galera bakoitzeko, markatu X bat. Ekonomia jarduerari lotutako hainbat elementu eskualdatu izateagatik, hainbat eranskin betez gero, eranskin bakoitzean lauki diferentea markatu.

1	2	3	4	5	6

4146 Metodoa eta modalitatea:
ZZ: zuzeneko zenbatespenaren metodoa, Z0: zenbatespen objektiboaren metodoa, MN: modalitate normala, ME: modalitate erraztua, MM: zeinu, indize eta moduluen modalitatea.

4147 4148 EJZko epigrafea eta testua:
Jarduerari dagokion Ekonomia Jardueraren gaineko Zergaren idazpurua eta testua adieraziko dira.

4149 Zergadunaren gakoa:
«A» jarri behar da, irabazia edo galera lortu duena aitorlea bera denean, «E» ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea denean eta «S1», «S2»… honelako etekinak dituzten seme-alaba bakoitzeko.

1462 Jarduera mota:
Dagokion mota adieraziko da. ENP = enpresa; LAN = lanbide jarduera; ART = artistikoa; NEK = nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza; BAS. = basogintza.

4151 Elementuaren identifikazioa:
Adierazi besterendu den ondasun mota (higiezina, makina, garraioko elementua, eta abar).

4158 Ondare galera:
Baldin (4157 – 4156) 0 baino < bada, idatz ezazu zenbatekoa lauki honetan, eta eraman ezazu, gainera, B-1 eta B-3 eranskinetako 41 laukira zeinu negatiboarekin, ekonomia jardueraren etekin garbia kalkulatzeko hautatutako metodoari eta modalitateari jarraituz.

4159 Ondare irabazia:
Baldin (57 – 56) 0 baino > bada, jar ezazu zenbatekoa lauki honetan.

4160 Monetaren baliogaleraren zenbatekoa:
Kontabilitate balio garbi eguneratua ken kontabilitate balio garbia da. Gehienez, ondare irabaziaren balioa izango du.

Kontabilitate balio garbi eguneratua bi emaitza hauen arteko aldea izango da: erosketa balioa edo ekoizpen kostua eta, elementua lortu edo ekoitzi den urtea kontuan hartuta (hobekuntza, halakorik denean, egin ziren urtearen arabera), dagokion monetaren koefiziente zuzentzailea biderkatzean lortzen den emaitza; eta metatutako amortizazioak eta monetaren koefiziente zuzentzaileak (egin ziren urtearen arabera) biderkatzean lortzen den emaitza.
2011rako monetaren koefiziente zuzentzaileak hauek dira:

1984ko urtarrilaren 1a baino lehen	2,364
1984. urtean	2,147
1985. urtean	1,982
1986. urtean	1,866
1987. urtean	1,778
1988. urtean	1,698
1989. urtean	1,617
1990. urtean	1,554
1991. urtean	1,502
1992. urtean	1,457
1993. urtean	1,444
1994. urtean	1,416
1995. urtean	1,351
1996. urtean	1,303
1997. urtean	1,281
1998. urtean	1,334
1999. urtean	1,285
2000. urtean	1,200
2001. urtean	1,182
2002. urtean	1,162
2003. urtean	1,145
2004. urtean	1,131
2005. urtean	1,113
2006. urtean	1,091
2007. urtean	1,067
2008. urtean	1,034
2009. urtean	1,012
2010. urtean	1,010
2011. urtean	1,000

Koefizienteak honela aplikatu behar dira:
a) Erosketa prezioaren edo ekoizpen kostuaren gainean, ondare elementua erosi zen edo ekoitzi zen urtearen arabera. Hobekuntzei aplikatuko zaien koefizientea, haiek egin ziren urteari dagokiona izango da.
b) Kontabilizatutako amortizazioen gainean, horiek egin ziren urtearen arabera.

4161 Irabazi zuzendua:
Jar ezazu 4159 – 4160 arteko diferentzia.

4162 Berrinbertsioagatik salbuetsitako irabazia:
Posible izango da jarduerari lotutako ibilgetu materialaren, inmaterialaren eta higiezin-inbertsioen ondare elementuak kostu bidez eskualdatzetik sortutako irabaziak –behin zuzendu eta gero– zerga oinarrian ez sartzea, baldin eta eskualdaketaren zenbatekoa aurretik aipatutako elementuetako edozeinetan berriz inbertitzen bada, ondare elementua entregatu edo eskura jarri den dataren aurreko urtearen eta hurrengo hiru urteen arteko epearen barruan.
Berrinbertitutako zenbatekoa eskualdaketan jasotakoaren guztizkoa baino txikiagoa izanez gero, errenta ez sartzea berrinbertitutako kopuruaren proportziozko zatian bakarrik egin ahal izango da.

4164 Irabazi kargagarria:
Idatzi adierazitako eragiketaren emaitza. Zenbatekoa B-1 eta B-3 eranskinetako 41 laukira eramango da, ekonomia jardueraren etekin garbia kalkulatzeko hautatutako metodoaren eta modalitatearen arabera.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	PFEZ 2011 **B-5 ERANSKINA**

2011N EKONOMIA JARDUERETAN EGINDAKO INBERTSIOAK ETA/EDO ENPLEGU SORTZEA/LANBIDE HEZIKETAKO GASTUAK

JARDUERAREN DATUAK — 5199 [1] [2] [3] [4] [5] [6]

Metodoa eta modalitatea 5101

EJZko epigrafea eta testua 5102 5103

Zergadunaren gakoa 5104

Jarduera mota 1462 1 ENP 2 PRO 3 ART 4 NEK 4 BAS

	I + G / Berrikuntza teknologikoa	Enplegua sortzea	Bestelakoak
Inbertsioaren edo enplegu sortzearen / lanbide heziketako gastuen deskribapena	5106	5112	5117
Kenkariaren oinarria	5107	5113	5118
Aplikatzeko tasa	5108		5119
Kenkariaren zenbatekoa	5109	5114	5120
Partaidetza ehunekoa	5110	5115	5121
2011n ekonomia jardueretan egindako inbertsioen eta/edo enplegu sortzearen / LHko gastuen kenkaria	5111	5116	5122

EKONOMIA JARDUERETAKO INBERTSIOAGATIK 2011N EGITEKO DEN KENKARIAREN KALKULUA

ZERGADUNARENTZAKO ALEA

Zergadunaren gakoa 5123

	Sortze urtea	Muga	Aurreko ekitaldietan egin gabeko kenk. eta/edo 2011ko kenkaria	2011n egindako kenkaria	Egiteko dagoen kenkaria
KUOTAREN % 45EKO MUGA DUTEN INBERTSIOAK	2006	%45	5124	5130	
	2007	%45	5125	5131	5136
	2008	%45	5126	5132	5137
	2009	%45	5127	5133	5138
	2010	%45	5128	5134	5139
	2011	%45	5129	5135	5140

	Sortze urtea	Aurreko ekitaldietan egin gabeko kenk. eta/edo 2011ko kenkaria	2011n egindako kenkaria	Egiteko dagoen kenkaria
KUOTAREN % 45EKO MUGARIK GABEKO INBERTSIOAK	2006	5141	5147	
	2007	5142	5148	5153
	2008	5143	5149	5154
	2009	5144	5150	5155
	2010	5145	5151	5156
	2011	5146	5152	5157

2011. URTEAN EGITEKO DEN KENKARIA

KUOTAREN % 45EKO MUGAREKIN 5158

KUOTAREN % 45EKO MUGARIK GABE 5159

B5 ERANSKINA - PFEZ 2011

ARGIBIDEAK

Eranskin hau honako zergadunek bete beharko dute: 2011ko ekitaldian ekonomia jardueretan egindako inbertsioengatik kenkariak egiten dituzten zergadunek (Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/96 Foru Arauan, 37, 38, eta 41.etik 46.era bitarteko artikuluetan aurreikusitako kenkariak egin ditzakete). Era berean, hala dagokienean, kuota nahikoa ez delako, preskribitu gabe dauden aurreko ekitaldietan egindako inbertsioei dagozkien kenkariak egin gabe dituzten zergadunek bete beharko dute.
Eranskina jarduera bateko etekinak jasotzeko prestatuta dago. Zergadunak jarduera bat baino gehiago badu, eta horietan egindako inbertsioen kenkaria egiteko eskubidea badu, behar adina eranskin gehigarri aurkeztu beharko ditu.

INBERTSIOEN ETA BESTE JARDUERA BATZUEN KENKARIAK

Ekonomia jarduerak zuzeneko zenbatespeneko erregimenean egiten dituzten zergadunek kenkariak egin ahal izango dituzte aktibo finko material berrietan egindako inbertsioak bultzatzeko eta Sozietateen gaineko Zergei buruzko Foru Arauaren VII. tituluko IV. eta VI. kapituluetan zehaztutako jarduera jakin batzuk egiteko, ehuneko eta kenkari berdinekin.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan kenkari hauek egiteko ezarritako mugak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoari aplikatu behar zaizkio eta kuota hori zuzeneko zenbatespeneko metodoaren bidez zehaztutako ekonomia jardueren etekinek osatutako zerga oinarri orokorraren zatiari dagokiona izango da.

Kuota osoaren eskasiagatik egin ez diren kenkariak hurrengo hamabost urte jarraituetan amaituko diren zergaldietako autoaitorpenetan aplikatu ahal dira, betiere muga bera errespetatuz.

KENKARI HAUEK APLIKATZEKO ESKEMA

% 45eko mugarekin, soberakina: hurrengo 5 urteak. Inbertsioengatiko kenkaria:

a) Aktibo ez korronte berrietako inbertsioen kenkaria, (24/96 FA, 37. art.): inbertsioaren %10.

Arauak:

– Oinarri gisa, kontraprestazioa onartzen da, ondokoak salbuetsiz: korrituak, zeharkako zergak, errekarguak eta lurzoruaren balioa. Dirulaguntzei 100 eta karga tasa arteko aldearen ehunekoa aplikatuz lortzen den zenbatekoa kenduko da.
– Jada funtzionarazia.
– 5 urteko epean (3 urteko epean, ondasun higikorrak badira) edo balio bizitzak iraun artean hirugarrenei ez eskualdatzea, ez alokatzea, ez eta lagatzea ere.
– Leasing ondasunak

Betekizunak:

– Kontzeptu berria: erabili gabea.
– Pabilioi birgaituak.
– Lursailak ez.
– Kontabiliza daitezela.
– Hobekuntzaren kontabilitate tratamendua duten inbertsioek ez.
– 5 urtean amortizatzeko aktiboak, informatika ekipoak salbu.
– Garraiobide jakin batzuen gaineko Zerga Berezia ez ordaintzea, renting izan ezik.
– Inbertsioa > 60.101,21 euro (*) eta bi baldintza hauetako bat betetzea:
  > aktibo ez korrontearen %10, amortizazioak kenduta.
  > izaera bereko aktibo ez korrontearen kontabilitate balioaren %15.

(*)Inbertsioa 60.101,21 euro edo txikiagoa bada ere kengarria da, baina langile kopurua gutxienez kontratu mugagabe batekin gehitu eta bi urtez mantentzen bada.

b) Kultura ondarea babesteko eta zabaltzeko ekintzengatiko, zinema produkzioetako eta liburu argitalpeneko inbertsioengatiko kenkariak (24/96 FA, 38. art.).

c) Garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta energia iturrien baliakuntza eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsioengatiko kenkaria (24/96 FA, 44. art.):
inbertsioaren %15 edo %30 (zenbait jarduera).

d) Enpresak langileen pentsio planetara, gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetara egindako ekarpenen kenkaria, enpresaren gizarte aurreikuspeneko tresna gisa badihardute (24/96 FA 44.bis art.)
Langileei egotzitako enpresa ekarpenen %10, urtean langile bakoitzeko 8.000 euroko mugarekin, beti ere langile multzoari badagozkio eta enpleguko pentsio planetara, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/41/CE Zuzentarauan araututako pentsio planetara, gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetara egiten badira, horiek enpresaren gizarte aurreikuspeneko tresna gisa badihardute eta subjektu pasiboa horien sustatzailea edo bazkide babeslea bada.

e) Lanbide heziketako gastuen kenkaria (24/96 FA, 44.ter art.): %10 (aurreko bi ekitaldien batez bestekoaren soberako gastuaren %15 gehituko da, jasotako dirulaguntzen %100en eta karga tasaren arteko diferentziaz murriztuta).

f) Enplegua sortzearen kenkaria (24/96 FA, 45. art.):
Kontratatutako pertsona bakoitzeko 4.600 euro kendu ahal izango da, zergaldian zehar, mugarik gabeko lan kontratua izanik. Zenbateko hori 4.000 eurotan handituko da kontratatutako pertsona lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetakoren batean dagoen pertsona bada.
Kenkaria aplikatzeko, beharrezkoa da mugarik gabeko lan kontratua duten langileen batez besteko kopurua aurreko urtekoaren aldean gehitzea, eta hurrengo bi urteetako bakoitzean mantentzea
Kenkarirako dagoen muga da kuota osoaren %45 eta kuota hori ekonomia jardueren etekinek osatutako zerga oinarri orokorraren zatiari dagokiona da:

$$\text{KUOTA OSOA}_R = \frac{\text{Ekonomia jardueren mozkina}}{\text{Zerga oinarri orokorra}} \times \text{kuota orokor osoa}$$

Izanik: Ekonomia jardueretako mozkinak: 62 edo 64 edo 66 68 laukien Σ.
Zerga Oinarri Orokorra: likidazioaren 3. orriko 251 laukia.
Kuota orokor osoa: likidazioaren 4. orriko 434 laukia.

Kuotari dagokion kenkarian mugarik gabe, soberakina: hurrengo 5 urte.

a) I + Gko jardueren kenkaria (24/96 FA, 41. art.).
– I + Gko jardueren gastuen %30.
Aparteko pizgarria: aurreko bi ekitaldietako batez bestekotik gorakoaren %50.
Kenkari gehigarria: ondoko langile gastuen (ikertzaileak) eta I + G proiektuei dagozkien gastuen %20.
– Ibilgetu material eta ukiezinean, higiezinetan eta lurretan izan ezik, egindako inbertsioen %10.
Jasotako dirulaguntzen %100en eta karga tasaren arteko diferentziaz murriztuko da.

b) Berrikuntza teknologikoarengatiko kenkaria (24/96 FA42. art.):
– Kontzeptu hauen %20:
  unibertsitateei, ikerketako erakunde publikoei edo berrikuntza eta teknologia zentroei gauzatzea enkargatutako proiektuen gastuak, ISO 9000, ISO 14000, GMP edo antzeko kalitate ziurtagiriak lortzea.
– Kontzeptu hauen %15:
  Ekoizpen prozesuko industria eta ingeniaritzako diseinu gastuak eta teknologia (patenteak, baimenak,…) erosteko gastuak, gehienez milioi 1 euro urteko.

Jasotako dirulaguntzen %100en eta karga tasaren arteko diferentziaz murriztuko da.

2011N EKONOMIA JARDUERETAN EGINDAKO INBERTSIOAK EDO ENPLEGUA SORTZEA / LANBIDE HEZIKETAKO GASTUAK

Jar ezazu X bat zergadun beraren inbertsioengatik kenkarirako eskubidea duen jarduera bakoitzarengatik. Eranskin bat baino gehiago betez gero, lauki desberdinak markatu, jarduera desberdinei dagozkien inbertsioen kenkariak izateagatik.

1	2	3	4	5	6

Metodoa eta modalitatea: Adierazi 5101 laukian, jarduera zuzeneko zenbatespeneko metodoren bitartez eta modalitate normal edo erraztuaren bitartez egiten den eta, hala badagokio, nekazaritza, basogintza edo arrantza jarduera den.
Jarduera zenbatespen objektiboaren metodoaren bitartez egiten bada, adierazi 5101 laukian zeinuen, indizeen edo moduluen modalitatea.

EJZko epigrafea eta testua: Jarduerari dagokion Ekonomia Jardueraren gaineko Zergaren idazpurua eta testua 5102 eta 5103 laukietan adierazi beharko dira, hurrenez hurren.

Zergadunaren gakoa: «A» jarri behar da, kenkaria egiten zaiona aitorlea bera denean, «E» ezkontidea edo izatezko bikoteko kidea denean eta «S1», «S2»… seme-alaba bat bada, 5104 laukian.

Jarduera mota: Ekonomia jarduera adieraziko da: ENP = enpresa; LAN = lanbide jarduera; ART = artistikoa; NEK = nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza; BAS. = basogintza, 1462 laukian.

Deskribapena:

– I+G/Berrikuntza Teknologikoa: I+G, langileak, ibilgetua, ISO,… 5106 laukian.
– Enplegua sortzea: Pertsona kopurua, 5112 laukian.
– Bestelakoak: liburu zabalkundea, enpresen ekarpenak, lanbide heziketa, …: 5117 laukian.
– Kenkariaren oinarria: 5107 edo 5113 edo 5118 laukiei dagokien inbertsioaren zenbatekoa adieraziko da.
– Aplikatzeko tasa: Dagokion kenkariaren ehunekoa adieraziko da, egindako inbertsio kengarriaren arabera, 5108 edo 5119 laukietan.
– Kenkariaren zenbatekoa: Kenkariaren oinarria X partaidetzaren % (5109 edo 5114 edo 5120 laukietan).
– 2011n ekonomia jardueretan egindako inbertsioengatiko kenkaria, jarduerak honela bereizita: I+G/Berrikuntza teknologikoa, Enplegua sortzea, bestelakoak 2011 Kenkariaren zenbatekoa X partaidetza % (5111 eta/edo 5116 eta/edo 5122 laukiak).

2011N APLIKATU BEHARREKO EKONOMIA JARDUERETAKO KENKARIA KALKULATZEA

Bananduta adieraziko dira, batetik, I+G/berrikuntza teknologikoari eta enplegu sortzeari (mugarik gabe) dagozkien kenkariak eta, bestetik, muga duten kenkariak.

2011 ekitaldiko 5111 edo 5116 edo 5122 tik 5129 ra edo 5146 laukietara eramango dira.

Kuota nahikoa ez dela eta aurreko ekitaldietan kendu ez ziren kantitateak, dagokien laukietan adieraziko dira.

5158 laukian, %45eko muga aplikatzekoa zaion eta 2011n egiten den kenkari osoa adieraziko da.

5159 laukian, 2011ko ekitaldian egiten den mugarik gabeko kenkaria adieraziko da.

Lauki horien batura likidazioaren 5. orrialdeko 463 laukira eramango da.

2011 ekitaldiko errenta aitorpenari egotziko zaion ekonomia jardueretako kenkaria ondoren adierazten den hurrenkeraren arabera kalkulatuko da:

1. Lehenik, %45eko muga aplikatzekoa izan zuten 2011 baino lehenagoko kenkariak egingo dira.
2. %45eko muga aplikatzekoa duten 2011ko ekitaldiko kenkariak egingo dira.
3. 2011 baino lehenagoko ekitaldietatik datozen eta mugarik gabe egiten diren kenkariak egingo dira.
4. 2011ko ekitaldiko mugarik gabeko kenkariak egingo dira.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	PFEZ 2011 C-1 ERANSKINA

OHIZKO ETXEBIZITZAREN ESKUALDAKETAGATIKO ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK

Etxebizitzaren deskribapena	7101		7119			DENETARA
Katastro erreferentzia	7137		7138			
Eskuratze data	7102	/ /	7120	/ /		
Eskualdaketa data	7103	/ /2011	7121	/ / 2011		
Eskuratze balioa	7104		7122			
Eguneratze koefizientea	7105		7123			
ESKURATZE BALIO EGUNERATUA (1)	7106		7124			
ESKUALDAKETA BALIOA (2)	7107		7125			
DIFERENTZIA (2) - (1) ONDARE GALERA	7108		7126		701	
ONDARE IRABAZIA	7110		7128		721	

Ondare irabazia eta 1994-12-31 baino lehen eskuratutako higiezina izatekotan (1. X.I.)

2006-12-31ra arte sortutako irabazia (3)	7139		7140		
1996-12-31 arte egondako urte kop.	7112		7130		
Bitik gorako urte kopurua (4)	7113		7131		
Murrizte koefizientea (%11,11) x (4) (5)	7114	%	7132	%	
96-12-31ra arteko irabaziaren murrizketa [(3) x (5)]% (6)	7141		7142		
Ondare irabazi murriztua [(2) – (1)] – (6) (7)	7115		7133		
Ondare irabazi salbuetsia (712 eta/edo 720 laukiak) (8)	7116		7134		
ONDARE IRABAZI ZERGAPETUA (7) – (8)	7117		7135		703

ZERGADUNAREN TZAKO ALEA

2011N OHIZKO ETXEBIZITZA ESKUALDATZEAGATIK SORTUTAKO ONDARE IRABAZIA BERRINBERTITZEAGATIKO SALBUESPENA

Ondare irabazi murriztua	705		713	
Ohizko etxebizitzaren eskualdaketa balioa	706		714	
Eskualdaketa datan kantzelatutako maileguaren zenbatekoa	707		715	
Berriro inberti daitekeen gehienezko kopurua	708		716	
2011-12-31 arte berrinbertitutako kopurua	709		717	
Eskualdaketa datatik bi* urteko epean berrinbertitzeko zenbatekoa	710		718	
Berrinbertsioaren zenbatekoa guztira	711		719	
Ondare irabazi salbuetsia	712		720	

C1 ERANSKINA - PFEZ 2011

ARGIBIDEAK

PFEZaren Araudia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuko 67. artikuluaren arabera, ohiko etxebizitzaren eskualdaketa egin badu bete beharko du zergadunak eranskin hau.

7101 7119 **Etxebizitzaren deskribapena:** etxebizitzaren kalea, zenbakia, solairua eta udalerria, edo egindako hobekuntzen deskribapena.

7137 7138 **Katastro erreferentzia:** aurreko idatz zatian deskribatu den etxebizitzaren OHZko ordainagirian agertzen den erreferentziaren digituak.

7102 7120 **Eskuratze data:** hobekuntzak egin badira, noiz egin diren adierazi.

7104 7122 **Eskuratze balioa:** Zenbateko hauek gehitu behar dira:
- Eskuratzearen benetako zenbatekoa. Mozkinezko eskuratzea izan bada, benetako zenbatekoa Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergako arauen araberakoa izango da.
- Eskuratutako ondasunetan egindako inbertsioen eta hobekuntzen kostua.
- Eskuratzeari lotutako gastuak eta zergak, eskuratzaileak ordain izan ditzakeen interesak izan ezik.

7105 7123 **Eguneratze koefizientea:** aurreko eskuratze balioari eskuratze, inbertsio edo hobekuntza urtearen arabera eta, halakorik izanez gero, amortizazioei aplikatzekoa.

Etxebizitza eskuratzearen urtea	Koefizientea
1994 eta aurrekoak	1,457
1995	1,548
1996	1,491
1997	1,457
1998	1,425
1999	1,386
2000	1,339
2001	1,289
2002	1,244
2003	1,210
2004	1,174
2005	1,137
2006	1,099
2007	1,069
2008	1,028
2009	1,024
2010	1,010
2011	1,000

Hala ere, ondare elementua 94-12-31n eskuratu baldin bada, 1,548 koefizientea aplikatuko da.

7106 7124 **Eskuratze balio eguneratua (1):** eskuratzearen balioa, etxebizitza eskuratutako urteko eguneratze koefizienteaz biderkatuta lortzen den emaitza da.

7107 7125 **Eskualdaketa balioa (2):** Zenbateko hauen arteko aldea da:
- Besterentzearen benetako zenbatekoa. Eskualdaketagatik benetan ordaindu den zenbatekoa da. Hala ere, zenbatekoa merkatukoa baino txikiagoa bada, merkatuko prezioak balioko du.
- Mozkinezko eskualdaketa izan bada, besterentzearen benetako zenbatekoa Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergako arauen araberakoa izango da.
- Eskualdaketari lotutako gastuak eta zergak, eskualdatzaileak ordaindu dituen interesak izan ezik.

Eskualdatutako ondare elementuetan hobekuntzak egin badira, hobekuntzari dagokion eskualdaketa balioa zehaztuko da.

ONDARE IRABAZIA EDO GALERA

Eskualdaketa balioaren 7107 7125 (2) eta eskuratze balio eguneratuaren 7106, 7124 (1) arteko aldea da.

ONDARE GALERA: galeren batura (7108 + 7126), 701 laukian jarriko da.

ONDARE IRABAZIA: irabazien batura 7110 + 7128, 721 laukian jarriko da.

Ondare irabazia lortu eta 1994-12-31 baino lehen eskuratutako higiezina baldin bada (1. Xedapen Iragankorra), jarraian adierazten den bezala kalkulatzen jarraituko da:

7139 7140 **2006-12-31ra arte sortutako irabazia (3):** Jarri atal honetan 7110 eta 7128 ataletan lortutako irabazia bider eskuratze datatik 2006-12-31ra arte igarotako egun kopurua zati zure ondarean egon den egun kopurua.

7112 7130 **96-12-31 arte egondako urte kopurua:** Atal honetan adieraz ezazu eskualdatutako etxea eskuratu zen datatik 96-12-31 arte igarotako urte kopurua, goraka biribilduta.

7113 7131 **2tik gorako urte kopurua (4):** 96-12-31 arte egondako urte kopurua ken bi eginda ateratzen den diferentzia.

7114 7132 **Murrizte koefizientea:** % 11,11 x (4) ateratzen den emaitza.

7141 7142 **96-12-31ra arteko irabaziaren murrizketa (6):** 2006ra arte lortutako ondare irabaziari murrizte koefizientea aplikatzearen emaitza. Horretarako, formula hau erabili behar da: [(3) x (5)]%.

7115 7133 **Ondare irabazi murriztua (7):** ondare irabazi osoari 2006ra arte lortutako ondare irabazitik dagokion murrizketa egitearen emaitza. Horretarako, formula hau erabili behar da: [(2) – (1)] – 6].

7116 7134 **Ondare irabazi salbuetsia (8):** berrinbertsioagatiko salbuespena aukeratuz gero, eranskin horretako 712 eta 720 laukietako zenbatekoa eraman egin behar duzu.

ONDARE IRABAZI KARGAPETUA: (7) – (8) eginez gero lortzen den diferentzia.
Ondare irabazi kargapetuen batura (7117 + 7135), 703 laukian jarriko da.

2011N OHIKO ETXEBIZITZA ESKUALDATZEAGATIK SORTUTAKO ONDARE IRABAZIA BERRINBERTITZEAGATIKO SALBUESPENA

Berriro inberti daitekeen gehienezko kopurua: 708 716 : 706 714 eta 707 715 laukien arteko aldea kalkulatuko da.

Ondare irabazi salbuetsia 712 720 **:** hori kalkulatzeko, 711 719 laukiak hurrenez hurren 708 716 laukien artean banatu, eta ateratzen den emaitza ondare irabazi salbuetsiaren zenbatekoarekin 705 713 biderkatu.

2010erako Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 17ko 14/2009 Foru Arauaren hamabigarren xedapen gehigarriak berriro inbertitzeko epea luzatzen du ohiko etxebizitza 2009ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra arte eskualdatzen denean, edo ohiko etxebizitza 2009ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra arte erosi eta ondoren lehengo ohiko etxebizitza eskualdatzen denean.

C-4 eranskineko 781 laukira eraman C-1 eranskin honetako 701 laukiko emaitza, edo 721 laukikoa, edo 703 laukikoa, dagokionaren arabera.

IFZ	DEITURAK ETA IZENA	PFEZ 2011 C-2 ERANSKINA

NEGOZIAZIORA ONARTUTAKO BALIOEN ESKUALDAKETAREN ONDORIOZKO ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK

Eskualdaketa data **8102** ...../...../ 2011 Eskualdaketaren zenbatekoa tituluko = Eskualdaketaren zenbatekoa / Eskualdatutako titulu kp.

																					GUZTIRA
Eskuratze data	8103	...../...../.....	8118	...../...../.....	8133	...../...../.....	8148	...../...../.....	8163	...../...../.....											
Eskuratze balioa	8104		8119		8134		8149		8164												
Eguneratze koefizientea	8105		8120		8135		8150		8165												
Eskuratze balio eguneratua (1)	8106		8121		8136		8151		8166												
Titulu kp.	8107		8122		8137		8152		8167												
Titulu kp. x eskualdaketaren zenbatekoa tituluko (2)	8108		8123		8138		8153		8168												

DIFERENTZIA (2) – (1)

ONDARE GALERA	8109		8124		8139		8154		8169		731										
ONDARE IRABAZIA	8111		8126		8141		8156		8171		733										

Ondare irabazia eta 1994-12-31 baino lehen eskuratutako balioak izatekotan, betetzen jarraitu:

2006ko Ondare Zergarako balioa	8201		8204		8207		8210		8213												
2006-12-31ra arte sortutako irabazia (3)	8202		8205		8208		8211		8214												
1996-12-31 arte egondako urte kop.	8113		8128		8143		8158		8173												
Bitik gorako urte kopurua (4)	8114		8129		8144		8159		8174												
Murrizte koefizientea %25 x (4)) (5)	8115	%	8130	%	8145	%	8160	%	8175	%											
96-12-31ra arteko irabaziaren murrizketa[(3) x (5)]% (6)	8203		8206		8209		8212		8215												
ONDARE IRABAZI ZERGAPETUA [(2) – (1)] – (6)	8117		8132		8147		8162		8177		734										

ZERGADUNAREN TZAKO ALEA

INBERTSIO FUNTSAK ESKUALDATZEAREN ONDORIOZKO ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK

Ondare galera	741		742	
Ondare irabazia	743		744	

Atxikipena (5. orrialdeko 517 laukira eraman) 745

SARIEN ONDORIOZKO ONDARE IRABAZIAK

Sariaren identifikazioa 8178 | 8189

DIRUZKO SARIA

Sariaren zenbatekoa	8179	
Atxikipena	8180	

GAUZAZKO SARIA

Sariaren balioespena	8182	
Emaileak kontura egindako sarrera	8183	
Sariaren zenbateko kargagarria	8184	
Zergadunak kontura egindako sarrera	8185	

SARIEN ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK (likidazioaren 5. orrialdeko 518 laukira eraman)	746	
ARIEN ONDORIOZKO ONDARE IRABAZIAK (C-4 eranskineko 784 laukira eraman)	747	

ONDARE ESKUALDAKETETATIK SORTUAK EZ DIREN ONDARE IRABAZI ETA GALERAK

Irabaziaren/galeraren deskripzioa 8230

Ondare irabazia 748 Ondare galera 749

C2 ERANSKINA - PFEZ 2011

ARGIBIDEAK

Eranskina eskualdaketa kopuru jakin bat jasotzeko prestatuta dago. Zutabe gehiago behar izanez gero, azkenekoan meta itzazu geratzen diren irabazi eta galera guztiak.

NEGOZIAZIORA ONARTUTAKO BALIOEN ESKUALDAKETAREN ONDORIOZKO ONDARE IRABAZIAK ETA GALERAK

8104 8119 8134 8149 8164 **Eskuratze balioa:** zenbateko hauek gehitu behar dira:
- Eskuratzearen benetako zenbatekoa. Mozkinezko eskuratzea izan bada, benetako zenbatekoa Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergako arauen araberakoa izango da.
- Eskuratzeari lotutako gastuak eta zergak, eskuratzaileak ordain izan ditzakeen interesak izan ezik.

8105 8120 8135 8150 8165 **Eguneratze koefizientea:**

Eskuratzearen urtea	Koefizientea
1994 eta aurrekoak	1,457
1995	1,548
1996	1,491
1997	1,457
1998	1,425
1999	1,386
2000	1,339
2001	1,289
2002	1,244
2003	1,210
2004	1,174
2005	1,137
2006	1,099
2007	1,069
2008	1,028
2009	1,024
2010	1,010
2011	1,000

Hala ere, ondare elementua 94-12-31n eskuratu baldin bada, 1,548 koefizientea aplikatuko da.

8106 8121 8136 8151 8166 **Eskuratze balio eguneratua (1):** eskuratze balioa, balio higikorrak eskuratu diren urteko eguneratze koefizienteaz biderkatuz lortzen den emaitza da.

ONDARE IRABAZIA EDO GALERA

Titulu kopurua titulu bakoitzeko eskualdaketaren zenbatekoarekin (2) biderkatu, eta hor lortutako emaitzaren eta eskuratze balio eguneratuaren (1) arteko aldea da.

ONDARE GALERA: galeren batura 8109 + 8124 + 8139 + 8154 + 8169, 731 laukian jarri behar da.

ONDARE IRABAZIA: ondare irabazien batura, 8111 + 8126 + 8141 + 8156 + 8171, 733 laukian adierazi behar da..

Ondare irabaziei dagokienez, balioak 1994-12-31 baino geroago eskuratu baldin badira, jarraian azaltzen den bezala jarraitu behar da kalkulua egiten, ondare irabazi kargapetua islatzeko.

8201 8204 8207 8210 8213 **2006ko ondare zergarako balioa.**

